ALDARTEN, jendartearen eraldaketan sinesten dugu, non pertsonak nahi dituzten sexualitateak eta desiratzen dituzten genero motak aukeratzeko eskubidea duten. Lau helburu nagusi ditugu: LGTBI+ pertsonen ikusgaitasun oso ahalbidetzeko, inolako ondorio negatibo eta arriskurik gabeko ingurunea posible egitea; aurreiritzizko eta estereotipatuak diren jarrera sozialen aldaketa bultzatzeko, LGTBI+ pertsonen buruzko heziketa esku-hartzeak eta posible egiten duten beharrezko tresnak erraztea; jendarte ez bitarra eta ez heteronormatiboa (hetero arau emalea) lortzeko, jendarte sentsibilizazio eta eragin politikoa dute kanpainak egitea; zaurgarritasun egoera larrian dauden LGTBI+ pertsonen —errefuxiatuei, migratzaileei, ijitoei, zaharrei— elkartasuna eta sostengua eskaintzea.

BILDUMA honen helburua **ikasleei eta gazteei** LGTBI+ kolektiboaren errealitatearen inguruan **informazioa ematea** da. Dokumentu honetan aurkituko dituzuen definizioak, dokumentu ofizialetan zein beste dokumentu motetan erabiltzen diren **definizio ez hertsietan oinarritzen dira**. Ikus dezakezuenez, hau glosarioaren 3. edizioa da. Terminologia berria sartu dugu sortu ahala, pertsonak izendatu edo identifikatu diren heinean.

Nortasunen, desiren, gorputzen edota generoen inguruan **esleitzen diren eraikuntzei, erabakitzen dugun paperei edota aukeratzeko zein burutzen ditugun rolei** buruzko **hausnarketa bultzatu** nahi dugu. Azken finean, lan hau dela medio, barneratuta ditugun errealitateak **zalantzan jarri** nahi ditugu. Esparru guztietan errealitatea hobetzera bideratutako esperientzietan edo ekimenetan oinarrituta, arlo guztietako ikasleei, profesionalei eta LGTBI+ pertsonen zuzentzen gara.

Dokumentu hau **interesgarria** eta **baliagarria izan dadila** espero dugu, guretzat izan den bezala.

LGTBI+ akronimoa

Gay, lesbiana, bisexual eta abarren kolektiboaren historia modernoan zehar, akronimo asko erabili izan dira. Kontua da akronimo ugari daudela eta erabiltzailearen arabera izan ohi dela izendapen horien arteko hautaketa.

LGTBI+ kolektiboa osatzen duten pertsonak **sozialki heterogeneoak eta aldakorrek diren errealitateetako partaide dira, eta errealitateak, aldi berean, oso pertsonalak dira.** Literatura ugari idatzi da LGTBI+ izateak esan nahi duenari buruz, zer den eta zer ez den horri buruz. LGTBI+ izatea zer den definitzea eztabaida sozial zabal eta konplexu baten muina da, eta izango da; eman zaion esanahia guztiz aldatzen da kultura eta garai historikoen arabera, oso zabala da, eta kolektiboa osatzen duten pertsonak euren ez dute adostasunik lortu.

LGTBI+ terminoak, eraikuntza sozial bat den neurrian, ez dio guztiz erantzuten barne hartzen dituen pertsonen eguneroko errealitateari, eta, jakina denez, bere baitan biltzen dituen hitzek markatzen dituzten mugak baino askoz harago doa (Misse, 2013). Hala, nork bere gorputzarekin, besteekin eta ingurunearekin duen harremana ulertzeko, “beharrezko fikzioez” (Weeks, 1999) hitz egin beharko genuke; beharrezkoak, posible egiten gaituztelako, geure buruentzat eta gainerakoentzat ulergarriak (Coll-Planas, 2010). Eta eraikitako fikzio bat den heinean, LGTBI+en errealitatea ez dator bat ezaugarri funtsezko edo aldaezin jakin batzuekin.

LGTBI terminoak berarekin dakarren sailkapena ezerosoa gertatzen da sarritan, etiketa hertsatzaileak ezartzen dituenek –eta zaila da horietatik ateratzea– eragin normalizatzailea baitu. Hala, **biltzera jotzen duten etiketak erabiltzeak –LGTBI+ terminoa, esaterako– ezerosotasunak sortzen baditu ere,** uste dugu horien erabilerak baduela indar eraldatzailea: norbanakoa zein taldea aldarazteko tresna bat da, sistemaren parte egiten gaitu, eta horretan eragiteko modua ematen digu.

Beraz, LGTBI+ siglak bere esanahi osoan erabilia, hurrengo hauek hartuko genituzke barruan:

Lesbiana, gay edo bisexualak diren pertsonak: pertsona ez heterosexualak, zeintzuen interes emozional, psikologiko, sozial eta sexualak, nagusiki, genero bereko pertsonen zuzendurik dauden, nahiz eta hori agerian ez adierazi.

Trans* diren pertsonak: Trans termino zabala asteriskoarekin erabiltzen dugu aniztasuna azpimarratzeko, gizonezkoen zer dagokien eta emakumeen zer dagokien ezartzen duten arauak gainditzeko dituzten pertsonen aniztasun hori azpimarratzeko, bizi dugun genero sistema bitarraren muga hertsia agerian utziz (Platero, 2014). Izendapen horrek barnean hartzen ditu transexualak, transgeneroak, trabestiak, genero-nortasun aldakorrekoak, ez bitarrak, sortzailekoak, etab.

Pertsona intersexualak: sexu bitartasuna kolokan jartzen duten pertsonak, jaiotzaz sexu anbigua dutelako, femenino edo maskulintzat erraz sailkatu ezinezkoa.

Akronimo hau LGTBI+ esamoldearen hitzez hitzekotik harago doa. Agerian uzten du aniztasuna egon badagoela eta aniztasun hori kontuan hartu behar dugula; kontuan hartu behar dugu, halaber, **pertsona jakin bat izendatzeko termino egokia zein den ez duela horri so egiten dionaren begiradak erabakitzen: pertsona horrek berak erabaki behar du bere buruari zer izendapen eman nahi dion.**

HIZTEGIA

- **Ahalduntzea:** Estrategia indibidual eta kolektiboa da, zeinaren bitartez pertsonak euren gaitasun, konfidantza, ikuspegi eta protagonismoa indartzen duten talde sozial bezala, bizi dituzten bazterkeria eta diskriminazio egoeretan aldaketak eragiteko.
- **Aniztasuna:** Aukera, aldaera, ugaritasuna, gauza desberdinen kantitate handia/ugari bezala ulertzen da aniztasuna. Aniztasun hitzak, sozialki zentzu positiboa izatea dakar: Zerbait ona da. Sozialki, aniztasuna, antropologikoki, gizakiak izateko eta bizitzeko era desberdineko parte izatea da.
- **Aniztasun Sexuala:** Pertsonak dituzten sexualitateetako ugaritasunari (heterosexualitatea, homosexualitatea, lesbianismoa, bisexualitatea, asexualitatea, polimaitasuna, etab.) egiten dio erreferentzia. Etika sexual baten alde egon behar dugu. Praktika sexual bat desagoki, amoral edo ilegala da, beti ere kontsentsu edo errespetu falta, bortizkeria edo elkarren arteko plazerrik ez badago.
- **Armairu:** Desira ez-heteronormatiboak, genero-adierazpen ez-normatiboak eta identitate desberdinak ezkutatzeko prozesua. Gainerakoek logika bitar eta heterosexistaren barneko gizon edo emakume gisa ikustea da helburua.
- **Armairutik irtetea:** Adierazpen arrunt anglosaxoi honek, pertsona batek bere ingurunean, bere sexualitatea agerian erakusten duen prozesuaz dihardu. Norbait armairuan dagoela esaten dugunean, bere ingurune laboralean, eskolan, etab. bere sexualitatea aurkezten ez duela diogu.
- **Asertibitatea:** Heziketa eta sozializazio prozesuen bidez komunikazioan egiten den berdinen arteko jokaera da. Heziketa-prozesuetan asertiboak izateak gainerakoek dituzten eskubideak errespetatzea baimentzen du, batez ere gutxiengo etniko, erlijioso, arrazako edo, gure kasuan, orientazio sexualeko talde baten parte direnean.
- **Autoestimua:** Guk gure buruarekiko dugun balioespenetik eta gure testuinguru sozialarekiko elkarrekintzetatik zein harremanetatik garatzen den kontzeptu bezala ulertzen dugu autoestimua.
- **Aurreiritzia:** Errealitatearen behaketan edo esperientzian oinarritzen ez diren baliozko iritziak diren ideiei aurreiritzia deritzogu. Desberdintasunaren, aniztasunaren aurrean jarrera negatiboak izatera eramaten gaituzte. Halaber, aurreiritzia, gorrotoa, haserrea, beldurra, desberdina izan ahal izateko nahiaren beldurra, etab., bezalako sentimenduak balioztatzen ditu, hots, sortu dituzten eta sortu ditugun sexu bakarreko, arraza bakarreko, kolore bakarreko, erlijio bakarreko etab. ereduak galtzera eramaten dituen nortasun prozesuak dira.

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orriko jarraipena)

LGTBIQ+ pertsonetikiko etengabeko mezu negatiboek, eta heterosexismoa gure gizarteko inguru guztietan egoteak, edozein pertsonak (lesbiana, trans, bisexualak eta homosexualak barne) LGTBIQ+ errealitateetikiko ideia negatibo hauek barneratuta izatea eragiten du. Honela, pertsona homosexual, lesbiana, bisexual edo trans batek, beldurra edo lotsa senti dezake bere sexualitateagatik. Sentimendu hauek barneratzen dituen pertsona gaixorik, anormala, bakarra... senti daiteke.

- **Berdintasuneko ezkontza:** 2005eko uztailaren 1etik Espainiako legeak sexu bereko bi pertsonen harremana gauzatzea, baimentzen du.
- **Binder-a:** Bularrak konprimitzeko erabiltzen den elementua da, eta bular horiek gutxi nabaritzeko erabiltzen da.
- **Binarismo:** Mendebaldeko pentsamendu modernoa sexu- eta genero- binarismoak markatzen du, sailkapen kontrajarri eta deskonektatuak ezartzen dituelarik: gizona/emakumea, maskulinoa/femeninoa, aktiboa/pasiboa, cis/trans, heterosexuala/homosexual, etab. Kontrakoen arteko muga hierarkiko eta zurrunik markatzen dituen binarismo bat, pertsonak hauek gainditzeko gogorik gabe uzten dituelarik. Mendebaldeak globalizatutako konstrukto-erakuntza sozial bat da. Binarismoaren hausturak sexu- eta genero-sistema desberdinak defendatzea dakar, baita gure esperientziak sexuaren eta generoaren eredu bitarraren arabera definitzen dituzten arauen aurkako borroka planteatzen ere.
- **Bisexualak:** Sexu bereko zein kontrako sexuko pertsonekin harreman sexualak eta afektiboak dituzten emakumeak eta gizonak.
- **Bollera:** Sexu-desira ez-heteronormatiboa definitzen duen genero-identitatea. Horrez gain beren identitatean ez dira emakumeen genero-adierazpenak soilik sartzen. Emakume identitatearekiko alternatiba bat da, eta egitura sexistak aztertu eta salatzen ditu, gorputz femeninoei esperientzia askeagoa eskainiz.
- **Desberdintasunerako eskubidea:** Norbere iritziak, gustuak, itxurak, ideiak, etab. edozein izanda ere, desberdintasunerako eskubidea, pertsona guztiek balio berak dituztela uste izatean oinarritzen da.
- **Deseraikuntza:** Prozesu psikosoziala; horren bidez, kontzeptu bati lotutako esanahia eraldatzen da, eta kontzeptua bera desegin eta beste batekin ordezkatu daiteke, errealitatearen irudikapena birsortuz. Errealitate horrekin modu berri batean erlazionatu ahal izatea ahalbidetzen du, horri lotutako emozioak ere aldatzeko aukera sortuz.
- **Enpatia:** Beste pertsona batzuen lekuan janzteko ahalmena da, nabaritzeko ahalmena izatera daraman gaitasuna da, beste pertsona batzuen pentsamenduak eta sentimenduak ulertzea dakar.

- **Estereotipoak:** Talde jakin bati atxikitzen dizkiogun ezaugarriak dira; horretarako, ezaugarria sinplifikatzen dugu eta talde guztian orokortzen dugu; beraz, kolektibo hauetako pertsona guztiak era berdinean jokatzeko dutela uste dugu hots, ezaugarri hauek, gay, lesbiana, bisexual eta pertsona trans* talde bezalako kide izateagatik erantzen/atxikitzen dira, eta ez Alaitz, Sharik, Susan, Hamza, Enara, Manex, Elur, Maisha... izateagatik, hau da, pertsonak.
- **Gai/Gay-a:** Gizon homosexualen jarduteko era positiboa da. Adierazpen anglosaxoia darabilen kontzeptua dugu "homosexualaz" jarduterako orduan, eta esanahi positiboa dauka. Hainbat emakumek erabiltzen dute baita ere, lesbiana hitza erabili ordez.
- **Generoa:** Genero ez da sexua kontzeptua bezalako, baina bi kontzeptua hauek era trukagarrian erabiltzen dira batzuetan. Generoa zerbait kulturala bezala ulertzen da eta sexua biologikotzat hartzen dugu. Nahiz eta jende guztia gorputz jakin batekin jaio, non gehiengo kulturala sexua deritzon, inor ez, ez da jaio neska edo mutila, emakume edo gizona bezala. Batez ere jaiotzen garenean genero bat esleitzen digute eta denborarekin eta prozesu konplexu baten ostean genero horrekin bat egiten dugu, hau da, genero horrekin identifikatzen gara (edo EZ). Gure mendebaldeko kulturean, generoa, gorputzak bi jende kategorietan, emakume eta gizona bezala, antolatzeko era dugu. Bi kategorio hauek, diskriminazio sendo batera eramana, emakumeak gizonezkoekin alderatuta, gutxituak dira. Generoaren esanahia testuinguru historikoaren, kulturalaren, politikaren eta kokapenaren... arabera eraldatzen doan kontzeptua dugu, gertagarria dena (faktore desberdin ugarien eta loturarik gabeko, aparteko eta ezohiko bat egite baten mende dagoena).
- **Sexua:** Generoaren kategorizazioa zehazteko sexu kontzeptua erabiltzen da. Mendebalean, sexua (sexu-organo, aparatuan oinarritua) era determinista eta biologikoan azaltzen dugu, hortaz, hornidura genital femenino argi eta garbiarekin jaiotzen bada, emakume generoa esleituko da, eta hornidura maskulino argi eta garbiarekin jaiotzen bada gizon generoa esleitzen da. Argi eta garbi geratzen ari da egoera hau kale egiten ari dela, batez ere egoeraren errealitateak, gorputz fisikoak konplexuak eta sarritan ez bitarrak direla dio. kategoria sozialak hain argi eta garbi ezin dira mantendu bi ezaugarri hauetan arazoak sortu gabe. Beraz, sexua, (generoa bezala) jendarte eraikuntza bezala ulertu behar da. Sexua generoarekin lotzeko era determinista batean egindako saiakera guztiak, maila batean beti kale egiten dute. Ezarriko dugun edozein harreman, testuinguruko alderdia, alderdi kulturala, historikoa eta politikoa izango du. Finkatuko dena, baieztatuko dena eta birbaieztatu beharko dena etengabe, egiazkoa izaten jarraitu dadin.

- **Genero adierazpena:** Genero adierazteko hainbat modu daude; besteak beste, emakume maskulinoa edo gizonezko femeninoa izatea. Aniztasun horrek genero bitarraren ideia apurtzea dakar; hau da, arrak diren gizonek soilik izan dezaketela adierazpen maskulinoa eta emeak diren emakumeek femeninoa. Adierazpenak modu ez binarioan eta zabalean ulertu behar dira.
- **Genero-Aniztasuna:** Generoan egoteko eta ulertzeko asko daude: genero jariakorra, genero sortzailea, etab. Aniztasun honek, genero bitarraren ideiarekin, hau da, bi genero (gizona, emakumea) daudela, non bakarrik bi sexu (arra, emea) dauden, oinarritutako ideiarekin apurtzea dakar. Generoa modu ez bitarrean ulertu behar da.
- **Genero ez-bitarra:** Pertsona ez-bitarra izateak (hemendik aurrera EB edo ebea) esan nahi du norbera **ez dela erabat eta gustora identifikatzen**, ezta modu sendo eta egonkorrean ere ez, gizon edo emakume izatearekin. Halaber, gizon edo emakume generoek esleitzen dituzten espektatiba edo betebeharrak sozialekin ez identifikatzea dakar. Ez-bitar terminoa zabala da, sentsibilitate- eta sentieraniztasun handia biltzen duena. Izan ere, EB pertsonak euren burua izendatzeko moduak askotarikoak izan daitezke: ageneroa, transgeneroa, genero jariakorra, genero neutroa, mutil transmaskulino ez bitarra, emakumea ez bitarra, gizon ez bitarra, lesbiana ez bitarra, trans ez bitarra eta etortzeke dauden beste asko. Aniztasun handia, historia propioa duten esperientzia askorekin lotzen dena.
- **Genero normatiboa:** Emakumeak edo gizonak garen arabera, gure ezaugarriak, subjektibitatea eta jokaerak geureganatzen dugun moduari dagokio, beti ere gure gizarteak maskulino zein femenino bezala kategorizatzen dituen oiek.
- **Genero-Rolak:** Emakumeek eta gizonek aritu behar duten jendarte papera eta portaera-itxaropen guztiak barnebiltzen dira.
- **Giroa:** LGTBI+ pertsonak, beraien artean aurkitzeko, egoteko eta biltzeko espazio seguruei eta ziurgabetasunik gabekoei deritzo. Era honetan ahalduntzeari¹ bide emanez, ikusgaitasun pertsonalarekin eta kolektiboarekin (ikusitako aurrerago ikusgaitasuna) zerikusia duena.
- **Harreman toxikoak:** Harreman erromantiko edo afektiboetan (adiskidetasun- eta familia-harremanetan ere erabiltzen dira) gerta daitezkeen indarkeriazko dinamikak definitzen ditu. Batzuetan eufemismo gisa erabiltzen dira tratu txarren edo indarkerien harremanez hitz egitea saihesteko. Horrek esan nahi du berdintasuna dagoela harremanaren barruko indarkeria-mailetan, eta ez, ordea, tratu txarren harremanetan, horietan hierarkia baitago.

- **Hetero-Araua / Heteronormatibitatea:** heterosexualitatea eta pertsona heterosexualak besteen gainera daudela pentsatzen sortzen den diskriminazio mota da. Kultura, politika eta legeetan aurki dezakegu. Gure gizartean kontrakoa argitu arte, denok heterosexualak gaita pentsatzen da; eta horrela, beste sexualitate batzuk ez dira irudikatua ezta onartua ere. Heterosexualitatea beste sexualitate batzuk iskitarazten dituen arau sozial dominantea da.
- **Heterosexualak (hetero-a):** Kontrako sexu bikote sexual eta eraginkorak aukeratzeko joera duten pertsonak.
- **Heterosexismoa:** Heterosexualitatea eta pertsona heterosexualak beste sexualitate batzuen gainera daudela onartzen den diskriminazioan oinarritzen da. Heterosexismo hau, legeetan, kulturen eta politikan dago.
- **Homofobia:** LGBTBI+ pertsonenganako, iruditzen direnenganako, hauekiko lotura erreal edo irudizkoa direnenganako beldurra eta ukapena.
- **Identitate kolektiboa (soziala):** Taldea osatzeko eta mugatzeko muga bezala balio dute. Afirmazio eta ukazio elementu bezala: *Ni naiz... Ni ez naiz...* Beste taldeekin alderatzen funtzionatzen dute, harraminta sozial bezala. Unibertso sinboliko batekin konektatzen gaituzte. Talde baten partaide izateak besteengandik ez urruntzea ideia interesgarri bat da, enfrentamenduak eta isolamendua ez garatzeko. Horregatik da garrantzitsua etengabe gure identitateak zalantzan jartzea.
- **Identitate pertsonala:** Guri buruzko oinarritzko galderei egiten die erreferentzia: *Nor naiz? Zer nahi dut? Zer naiz? Nolakoa naiz?...* Gure burua ezagutzeko, auto-kontzientziario eta nola pertzibitzen/hautematen garen inguruko prozesu bat da, jaiotzen garenetik sortzen dena beste pertsonekin harremanetan. Ezin da identitate pertsonal bat ulertu erreferente kulturalak gabe. Norbere buruarekiko ditugun epaketak, eta besteek gurearekiko, etengabe eragiten dute konstruktio/eraikuntza honetan. Denboran zehar gure buruarekiko irudi konsolidatu bat mantentzen lortzearekin datza. Gure esperientziak modu osatu batetan integratzen hain zuzen. Askotan ez dira oso egonkorak, modu jarriak batean moldatzen direlarik. Gure praktika sexualen eta generoen inguruan sortu ohi ditugu gure identitateak.
- **Intersexuala:** Jaiotzerakoan sexu bitarra zalantzan jartzen duten pertsonak. Sexu-organo maskulino eta femenino anbiguoekin (femenino bezala edo maskulino bezala kategorizatze erraza ez direnak) jaiotzen diren pertsonak, sarritan, jaiotzen direnean medikuak dira sexu bat esleitzen dietena. Bere sexu-organoekin edota generoekin bat egiteko arazoak esperimendu ditzakete.

- **Ikusgaitasuna:** Ikusgaitasunak zerikusi handia dauka LGTBI+ pertsonen ahalduntzearekin gure jendartean. Zentzu honetan, ikusgaitasuna bi dimentsioko prozesu moduan ulertzen dugu, norbanakoarena bat eta kolektiboa bestea:

Norbanakoaren ikusgaitasunak prozesua eragiten die LGTBI+ pertsonen beharrei erantzuteko gaitasunarekin eta konfiantzarekin ikusten dute beren burua, jendartearen aurrean besteekiko desirak dituzten emakume moduan azaltzeko, haien harremanen izaera adosteko eta harremanean eragiteko gaitasunarekin.

Horrela ikusita, norbanakoaren prozesu konplexua da ikusgaitasuna, desirarekin hasi, norberaren burua onartzearekin jarraitu eta agerrarazteko ekintzarekin amaitzen den prozesua.

Ikusgaitasun kolektiboa LGTBI+ pertsonen jendarte talde moduan bizi dituzten egoeretan aldaketa baikorrak egiteko protagonismoa handitzea da. Horrela, LGTBI+ pertsonen haien eskubide eta interesen kargu hartzen dute eta eragin handiagoa lortzeko asmoz besteen eskubide eta interesekin bat egiten dute. Ikusgaitasunak jendartearekin eta politikarekin zerikusi handia duen esanahia hartzen du.

- **Izatezko Bikotea:** Estatuaren bizikidetzako unitate ereduaren, heterosexualek zein homosexualen eta lesbikoen, kontrako onarpen-eredu batzuk dira.
- **Jazarpen homofobikoa (LGTBI+) / Bullying homofobikoa (LGTBI+):** Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta soziala eragiten den jazarpena da. Orokorrean ikasle talde, irakasle talde edota ikasle edo taldekide homosexuala, lesbiana, bisexuala eta transexuala denari. Baztertua izatetik, ez ikusiarena egitetik, irainak-eraso fisikoak-etab. jasotzetik, hilketara edo buruaz beste egitera sorrarazi arte barnebiltzen diren ekintzak ditugu.
- **Konstruktibismoa:** Errealitatea prozesu kognitibo indibidual eta kolektiboetan oinarrituta ulertzen dugula proposatzen duen teoria akademikoa. Ez gara errealitatearekin zuzenean erlazionatzen, errealitatea ulertzeko sortzen ditugun irudikapenen bidez baizik. Hori, besteak beste, tresna kulturaleri esker lortzen da, eta horrek eragiten du desberdintasun kulturek gure bizitzak ulertzeko modu desberdinak inplikatzeko.
- **Konstrukzio / Eraikuntza – Kulturala:** Kultura-elementua da errealitatea kategorizatzen / sailkatzeko prozesuen arduradunetako bat. Aurreko kontzeptuan xehetasun handiagoz azaltzen da.
- **Lesbiana:** Bikote afektiboak eta sexualak beste emakume batzuekin izatea aukeratzen duten emakumeak.

- **Luma (izatea):** Kontrako sexuari egozten zaien bigarren mailako ezaugarriak erakustea: emakumea bazara, zure lesbianismoaren adierazle bezala, zu maskulina erakustea izango litzateke, edo gizona bazara, femeninotzat hartutako keinuak edo jarrerak erakustea izango litzateke. Egile batzuek diote, luma izatea, ez ahozko hizkuntzako kode bat bezala, gayen eta lesbianen artean, neurri batean edo bestean erabiltzen dute, haien artean ezagutzeko. Beste egilek batzuek planteatzen dute, errepresioaren bidez sortutako metahizkuntza dela, haien artean identifikatu ahal izateko.
- **Marika:** Sexu-desira ez-heteronormatiboa definitzen duen genero-identitatea. Horrez gain beren identitatean ez dira gizon genero-adierazpenak soilik sartzen. Gizon identitatearekiko alternatiba bat da, eta egitura sexistak aztertu eta salatzen ditu, gorputz maskulinoei esperientzia askeagoa eskainiz.
- **Orientazio / Aukera Sexuala:** Pertsona baten nahia beste batzuekiko deskribatzen du, jada sexu berekoa edo desberdinekoa izan daitekeena.
- **Praktika sexualak:** Plazera helburu duen sexu-eszitazioarekin zerikusia duen ekintza oro da.
- **Patriarkatua:** Nagusitasun sozialeko, politiko, ekonomiko, kultureko sistema, emakumeak menpetasun posizioan mantentzen dituena gizonen dagokienez. Paraleloki, sistema nahitaezko heterosexualitateko eredu finkatzen da, sexualitate ez arauemailetako eredu diskriminatzailea.
- **Queer:** 80 urteen amaieran pertsona batzuek hitz hau errebindikatu zuten, aspaldiko zentzu txarreko hitza zena, era positiboan erabiltzera hasiera eman zitzaion. Jendarte arau heterosexistei aurkakotasunaz hitz egiteko era bilatzen zen, queer-izatea ez da soilik orientazio sexuala, orientazio politikoa ere bada, "hetero-arau aurkakoa" deiturikoa. LGBTI+ pertsona askok erabiltzen hasten diren "maritxua", "bollera" termino bezalakoek esanahi bera dute.
- **Outing-a:** Anglizismo hau, pertsona bat LGBTI+a dela iragartzeko ekintza izendatzeko erabiltzen da.
- **Sexismoa:** Gizakia emea/arra kategorietan eta horiei lotutako eskubide eta pribilegioetan oinarritutako gizakiaren inguruko ulermena. Baita genero-identitate eta -adierazpenak eta sexu-desira ere. Hierarkia-sistema bat da, non gizon heteronormatiboak eskubide gehien dituen.
- **Sexu eta genero aniztasuna (SGA):** Generoa bizitzeko modu amaigabeak daude, baita ere desiratzeko eta praktika sexualak izateko moduak ere. Gure desira eta generoak anitzak direla adierazten duen ikuspegia.

- **Sexu-genero sistema:** Gizartearen eredu bat da, zeinak sexualitate biologikoaren bitartez gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak azaltzen dituen, bigarrenak izanik kaltetuenak prozesu honetan. Emakume eta gizonen artean ematen diren subordinazio harremanak ulertzea ahalbidetzen du, sexua hauen jatorria bezala deskartatuz, sozialki sortutako genero posizioak izanik egoera honen arrazoia.
- **Sexualitatea:** Gure gorputz eta desirak molde normatibo batzuen arabera egituratzen dituen sistema da, globala eta baztertzaila, non gorputz eta desiren aniztasuna ez den kabitzen. Gorputz eta desirak aurretik ezarritako ikuspuntu baten bitartez ulertzen dira.
- **Sexualitatearen eraikuntza soziala:** Sexualitatea, gure praktika sexualetan eta afektiboetan, produktu historikoa eta soziala izan da, gure jendarte harremanenekin zerikusi gehiago dauka biologiarekin baino.
- **Sexualitate Ez-Araueaileak / Ez-Normatiboak:** Arau heterosexualetik ihes egiten duten adierazpen sexual guztiak. Ugalketa, ezkontza, eta maitasuna historian zehar sexualitatearen justifikazioak izan dira, eta gaur egun, ditugun praktika sexualen inguruko pertzepzioa baldintzatzen jarraitzen dute, hauek onak edo txarrak bezala ikusten ditugun.
- **TRANS* (Transexualismoa, Transexualak, Transgeneroak, Trabestiak):** Aterki termino bezala erabiltzen da, jaiotzean esleitutako bestelako genero batekin identifikatzen diren pertsonak taldekatzeko, edo haien genero-adierazpena beren esleipen-generoari lotutako jendarte-irudikapenetatik / aukeretatik aldentzen diren pertsonak taldekatzeko. Jendarteak genero ez-normatiboari ematen dien espazioa da.

BIBLIOGRAFIA

- ALDARTE (Equipo ALDARTE). Construyendo unos Derechos Sexuales (DDSS) no normativos desde la diversidad sexual y de género. 2019.
- ALDARTE (Equipo ALDARTE). Guía didáctica para trabajar el cuaderno Construyendo unos Derechos Sexuales (DDSS) no normativos desde la diversidad sexual y de género. 2019.
- ALDARTE (Equipo ALDARTE). Video El Puzle de la Diversidad Sexo-Genérica. 2020
- ALDARTE (Lala Mujika, Joseba Lopez de Gereñu, Garazi Beramendi y Gaizka Villar). Guía El Puzle de la Diversidad Sexo-Genérica. 2021.
- ALDARTE (Equipo ALDARTE). Cuaderno de divulgación sobre la realidad de personas migrantes y/o refugiadas. 2022.
- ALDARTE (Lala Mujika, Joseba Lopez de Gereñu y gaizka Villar). Universo no binario. Reflexiones para adolescentes y jóvenes LGTBIQ+. 2022.

- COLL-PLANAS, GERAD. (2010). La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans. Egales, 2010.
- COLL-PLANAS, GERARD. (2013). Dibujando el género. Egales, 2013.
- FAUSTO STERLING, A. (2006). Cuerpos sexuados. Barcelona: Melusina.
- GAYLE, RUBIN. (1989). "Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad", en Vance, C. (comp.), Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina. Revolución, 1989.
- GREGORI, N. (2015). Encuentros y des-encuentros en torno a las intersexualidades/dsd: narrativas, procesos y emergencias. Tesis Doctoral. Recuperado de <https://core.ac.uk/download/pdf/71050991.pdf>
- MISSÉ, MIQUEL. (2013). Transexualidades. Otras miradas posibles. Egales, 2013.
- MISSÉ, MIQUEL. (2018). A la conquista del cuerpo equivocado. Egales, 2018.
- MUJIKA, INMACULADA. (2007). Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi. Colección DDHH, Ararteko, 2007.
- MUJIKA, INMACULADA. (2011). Mujeres migrantes lesbianas. Aldarte, 2011.
- MUJIKA, INMACULADA. (2011). Informe sobre situación de la diversidad afectivo-sexual en la educación secundaria. Aldarte, 2011.
- MOMOITIO, ANDREA. (2013). Tesina De la invisibilidad a la irreverencia: Lesbianismo en televisión. Máster en estudios Feministas y de Género. UPV, 2013.

- OLAORTUA E., VILLAR, A. (2009). Gays, lesbianas y transexuales inmigrantes. Reflexiones para una buena acogida. Aldarte, 2009.
- PLATERO, RAQUEL (LUCAS). (2008). “Las lesbianas en los medios de comunicación: madres, folklóricas y masculinas”, en Platero, R. (coord.), Lesbianas, discursos y representaciones. Melusina, 2008.
- PLATERO, RAQUEL (LUCAS). (2012). “La interseccionalidad como herramienta de estudio de la sexualidad”, en Platero, R. (ed.), Intersecciones: cuerpos y sexualidad en la encrucijada. Bellaterra, 2012.
- PLATERO, RAQUEL (LUCAS). (2014). Trans*exualidades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos. Barcelona. Bellaterra,
- PLATERO R, GÓMEZ E. (2007). Herramientas para combatir el *bullying* homofóbico. Talasa, 2008.
- STRYCKER SUSAN (2017). Historia de lo trans. Continta me tienes. Madrid.
- VILLAR, AMPARO. (2005). El lesbianismo en el movimiento feminista y los colectivos de lesbianas. Aldarte, 2005.
- VIÑUALES, OLGA. (2006). Identidades lésbicas. Bellaterra, 2006.
- ALDARTE. (2009). La diversidad sexual y los derechos humanos. Gays, lesbianas, transexuales y derechos humanos. Aldarte, 2009.
- ALDARTE. (2012). Por los buenos tratos en las relaciones lésbicas y homosexuales.
- ALDARTE. (2009). No estamos locas, sabemos lo que queremos. Aldarte, 2009.
- AAVV. (2014). Miradas Atrevidas. Euskadi. ALDARTE y EHGAM, 2014.
- AAVV (2015). Lesbianas con Recursos. Euskadi; ALDARTE.